



## 12.02.29AN UDALBATZAK EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA

### BERTARATUAK:

Ramón Ajuria Uranga  
Lierni Altuna Ugarte andrea  
Ane Miren Echebarria Mendizabal andrea  
Miren Edurne Uribarren-Iturrieta Larrañaga andrea  
Andoni Solupe Amozarrain

José Ramón Uribe Uriarte jauna

### EZ BERTARATUAK:

Idoia Beitia Izurategi andrea  
Martín Damián Echave Echevarria jauna  
Iñaki Nafarrate Kortabarría jauna

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, bi mila eta hamabiko otsailaren 29an, arratsaldeko zazpiak (19:00) direnean, goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, lehenengo deialdian, Ramón Ajuria alkatearen lehendakaritzapean eta Itxaso Trigueros idazkariaren laguntzarekin. Alkateak, quorum dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:

### 1.- 12.02.07KO OHIKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

2012ko otsailaren 7an Udalbatzak eginiko bilkuraren aktaren zirriborroari buruz korporazio-kideren batek esatekorik duen galdetu du alkate jaunak.

Bertaratutako zinegotzi guztiek zuzenketa hori ontzat eman dute.

Beste okerrik igarri ez denez, aipatutako zuzenketarekin Aramaio Udalbatzak bozketari ekin dio eta, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin, ondorengo ERABAKI DU:

2012ko otsailaren 7ko ohiko bilkuraren akta onartzea.

### OGASUNA

### 2. 2011KO UZTAILA-AZAROA ARTEKO KONTAKETA AKTEN BERRI EMATEA.

Zinegotzi jaun andreei 2011ko uztaila-azaroa arteko kontaketa akten berri eman zaie, dagozkien frogagiri eta kontziliazioekin, hala balegokie. Akten emaitzak, laburrean, hauexek dira:

#### 2011.07.01 – 2011.07.31 ARTEKO KONTAKETA AKTA

Existencia anterior al periodo 414.863,32 €

INGRESOS 590.551,98 €

AJUSTES -6.568,04 €

INGRESOS LÍQUIDOS 583.983,94 €



PAGOS	296.762,86 €
AJUSTES	-6.568,04 €
PAGOS LÍQUIDOS	290.194,82 €
<i>Existencias a fin de periodo</i>	708.652,44 €

#### 2011.08.01 – 2011.08.31 ARTEKO KONTAKETA AKTA

<i>Existencia anterior al periodo</i>	708.652,44 €
INGRESOS	26.786,21 €
AJUSTES	-10.059,98 €
INGRESOS LÍQUIDOS	16.726,23 €
PAGOS	441.775,17 €
AJUSTES	-10.059,98 €
PAGOS LÍQUIDOS	431.715,19 €
<i>Existencias a fin de periodo</i>	293.663,48 €

#### 2011.09.01 – 2011.09.30 ARTEKO KONTAKETA AKTA

<i>Existencia anterior al periodo</i>	297.561,76 €
INGRESOS	409.892,22 €
AJUSTES	-5.161,79 €
INGRESOS LÍQUIDOS	404.730,43 €
PAGOS	227.557,35 €
AJUSTES	-5.161,79 €
PAGOS LÍQUIDOS	222.395,56 €
<i>Existencias a fin de periodo</i>	479.896,63 €

#### 2011.10.01 – 2011.10.31 ARTEKO KONTAKETA AKTA

<i>Existencia anterior al periodo</i>	479.896,63 €
INGRESOS	718.171,53 €
AJUSTES	-7.112,89 €
INGRESOS LÍQUIDOS	711.058,64 €
PAGOS	382.281,44 €
AJUSTES	-7.112,89 €
PAGOS LÍQUIDOS	375.168,55 €
<i>Existencias a fin de periodo</i>	815.786,72 €

#### 2011.11.01 – 2011.11.30 ARTEKO KONTAKETA AKTA

<i>Existencia anterior al periodo</i>	815.786,72 €
INGRESOS	90.407,36 €
AJUSTES	-5.774,42 €



INGRESOS LÍQUIDOS	84.632,94 €
PAGOS	177.185,17 €
AJUSTES	-5.774,42 €
PAGOS LÍQUIDOS	171.410,75 €
Existencias a fin de periodo	729.008,91 €

Bertaratutako zinegotzi jaun andreek, kontaketa aktak aztertu eta ontzat eman dituzte, aho batez onartuak izan direlarik.

## OGASUNA

---

### 3. ARRIOLAKO AZPIEGITURAK BERRITZEKO LANEN BERMEA BUELTATZEA, BIDEZKOA BADA.

Hirigintza Batzordeak ondorengo diktamena igorri du:

**GAIA:** Txosten Teknikoa

**Interesduna:** Excavaciones Arrasate

**Eskatzen den jarduera:** Jarritako bermea itzultzea-

*Lehenengoa.- Aurkezten den eskaeraren aurrean, Udal teknikoaren aldeko txostena igorrita, jarritako bermea itzultzea.*

Teknikoaren txostenaren arabera: “Obrara bisita egin eta gero, egiaztatu da egindako lanen egoera egokia dela eta beraz ez dagoela inongo arazorik bere garaian jarritako bermea itzultzeko”.

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin ondorengoa ERABAKI duelarik:

**Lehenengoa.-** “Excavaciones Arrasate” enpresak Arriolako azpiegiturak berritzeko lanak egiteko jarritako 16.965,90 euroko bermea itzultzea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau “Excavaciones Arrasate” enpresari jakinaraztea.

### 4. ARRAGAKO UR EDANGARRIA ETA SANEAMENDUKO SAREAK BERRITZEKO LANEN BERMEA BUELTATZEA, BIDEZKOA BADA.

Hirigintza Batzordeak ondorengo diktamena igorri du:

**GAIA:** Txosten Teknikoa

**INTERESDUNA:** Excavaciones Arrasate

**ESKATZEN DEN JARDUERA:** Jarritako bermea itzultzea

*Lehenengoa.- Aurkezten den eskaeraren aurrean, Udal teknikoaren aldeko txostena igorrita, jarritako bermea itzultzea.*

Teknikoaren txostenaren arabera: “Obrara bisita egin eta gero, egiaztatu da egindako lanen egoera egokia dela eta beraz ez dagoela inongo arazorik bere garaian jarritako bermea itzultzeko”.

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin ondorengoa ERABAKI duelarik:



**Lehenengoa.-** “Excavaciones Arrasate” enpresak Arriolako azpiegiturak berritzeko lanak egiteko jarritako 2.522,86 euroko bermea itzultzea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau “Excavaciones Arrasate” enpresari jakinaraztea.

## **UDAL GOBERNUARI KONTROLA ETA JARRAIPENA**

---

### **MOZIOAK (7/1985 Legeko 46.2.e) artikulukoak)**

---

#### **5. BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: KUTXABANK ENTITATE BERRIAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ORDEZKARITZAREN INGURUKOA.**

Bildu udal-taldeko ordezkariak ondorengo mozioa aurkeztu du:

“Tras el acuerdo del Consejo de Administración de la Caja Vital en el que se decidió una nueva representación del Consejo de Administración en la nueva entidad Kutxabank; y mientras se debate en el Parlamento de la CAV una Ley de Cajas que claramente va a perjudicar a la representación municipal en las futuras asambleas de las Kutxas, este Grupo de Junteros (o Grupo Municipal) presenta la siguiente MOCION para su debate y aprobación:

1- Mostrar el rechazo a la decisión de que se conforme el Consejo de Administración entre únicamente dos fuerzas políticas, pudiendo así mantener quienes han adoptado tal decisión el control exclusivo del mismo y excluir, en la nueva entidad Kutxabank, la participación de una representación plural de la sociedad y las instituciones vascas.

2- Solicitamos se mantenga el consenso que se había alcanzado para la creación de Kutxabank y que fue ampliamente apoyado por las Asambleas de las tres Cajas, dando cabida a una representación amplia, representativa y proporcional de la sociedad vasca y su realidad institucional que haga de Kutxabank

Vital Kutxaren Administrazio Kontseiluaren akordioaren aurrean, non, Kutxabank entitate berriaren Administrazio Kontseiluaren ordezkari bat erabaki zen, eta Euskadiko Erkidego Autonomoaren legebiltzarrean Kutxen Lege berri bat eztabaidatzen ari denean, zeinek modu argi batean udalen ordezkari kalteko duen, Bilduren Udal Taldeak honako MOZIOA aurkezten du bere eztabaida eta onarpenerako:

1- Administrazio Kontseilua bi indar politikoen artean osatzeko erabakiari gaitzespena agertzen diogu, honek erabateko kontrola ematen baitie erabakia hartu dutenei eta baztertu egiten baitu Kutxabank entitate berriak beharko lukeen gizartearen eta euskal erakundearen ordezkari zabala.

2- Kutxabank osatzeko lortu zen, eta hiru Kutxen Batzarretan modu zabal batean babestua izan zen, kontsentsua mantendu dadin eskatzen dugu. Bide eman behar zaio euskal gizartearen eta bere errealitate instituzionalaren ordezkari zabala, orekatu eta proportzional bati Kutxabank Herri honen eta bere gizartearen zerbitzura egon dadin.



una entidad al servicio de la sociedad y de este País.

3- Exigir el respeto de la representación en la nueva entidad Kutxabank, en los parámetros en los que estaba acordada en el Contrato de Integración y aprobada por las Asambleas de las Cajas los pasados meses de septiembre y octubre, por tanto, que se reconsidere y anule la disminución del número de personas del Consejo de Administración y se mantenga la función social, el apoyo y defensa de los intereses económicos de este País y del bienestar de su ciudadanía.

4- Denunciar la pretensión del actual borrador de la ley de cajas que disminuye claramente la participación municipal en las asambleas de las Kutxas, así como exigir una participación en dicho debate a través de una representación del conjunto de los municipios de la CAV.”

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio eta bertaraturako zinegotzi guztien adostasunarekin mozioa onartu du.

## **6. BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: SEKTORE PUBLIKOAREN ERREFORMARI BURUZKOA**

Bildu udal-taldeko ordezkariak ondorengo mozioa aurkeztu du:

“Duela egun batzuk espainiar gobernuaren arduradun zenbaiten ahotik, sektore publikoan gauzatuko den politikaren ildo nagusiak entzun genituen.

Horrela, sektore publikoaren erreformara bideratutako neurri zenbaiten artean, zein baino zein murriztaileagoak, Berrezarpen Tasaren izoztea iragarri zen. Horrek, udalean jubilatuko den funtzionario orenen plazarik ez betetzea inposatu nahi du. Honi Enplegu Publikoaren Eskaintza izoztuta dagoela gehitzen badiogu,

3- Integraziorako Hitzarmenean adostutako eta, aurreko iraila eta urrian zehar, Kutxen Batzarrek onartu zuten Kutxabank entitate berriaren ordezkariari errespetua exijitzen dugu. Eta, beraz, Administrazio Kontseiluaren ordezkarien murrizketa berriz hausnartu eta bertan behera geratu dadin eskatzen dugu eta entitatearen funtzio soziala, eta Herri honen eta bere gizartearen interes ekonomikoen babesa eta defentsa mantendu daitezen galdegiten dugu.

4- Kutxen Legearen zirriborroaren helburua salatzen dugu Kutxen Batzarretan Udalen ordezkari-tza nabarmen murrizten duelako, eta legebiltzarrean ematen ari den eztabaidan parte hartzea exijitzen dugu Erkidegoko Udalerrien ordezkari-tza baten bitartez.

Hace escasos días, escuchábamos en boca de diferentes responsables del gobierno español, las líneas maestras de lo que va a ser la política a seguir en el sector público por parte del Gobierno del Estado.

Así, entre otras medidas de reforma del sector público, a cada cual más restrictiva, se nos anunciaba la “congelación de la tasa de reposición”. Eso significa que ninguna plaza que deje un funcionario que se jubile en el ayuntamiento, se va a cubrir. Si a esto añadimos el hecho de que la oferta de



ondorioak oso larriak izan daitezke.

Aurrezpen neurri bezala zabaldu denak, lehen golpean ikusi daitezkeenak baino eragin askoz ere garrantzitsuagoak izango ditu. Lehenik eta behin, epe erdira begira eta udal langileak jubilatzen doazen heinean, udalek eman beharreko zerbitzuak emateko adina langile ez dutela izango esan nahi du. Ondorioz, zerbitzuen kalitatearen okertze bat eratorriko da udaletara, baita gure honetara ere. Era berean, langile publikoen lan baldintzen okertzea suposatuko du.

Aurretik adierazitakoa bezalako neurrien bigarren ondorio nagusia, zerbitzu publikoak pribatizatu behar direla defendatzen dutenei atea irekitzea da. Hau da, zerbitzu publikoen liberalizazio osoa defendatzen dutenei mesede egitea. Honen guztiaren ondorio zuzena, urte luzeen ondorioz guztiontzat ziren zerbitzuak, dirua duten gutxi batzuk soilik izatea da.

Ondorioz, eta azaldutakoaren bidetik, Aramaio-ko Bilduko udal taldeak honako mozio hau aurkeztu du eztatadatu eta onartu dadin:

1.- Udal honek, Espainiako Gobernuaren presidente den Mariano Rajoyk iragarritako neurriak errefusatzen ditu. Besteak beste, Enplegu Eskaintza Publikoaren suntsiketa eta funtzio publikoan berrezarpenaren debekuaz, udal honek eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea kaltetzen duelako.

2.- Udal honek, geroz eta premiazkoagoa den Ongizate Estatuaren defentsan kontsentsua mantentzea eskatzen du; udalek, herritarrengandik gertueneko erakundeak izanik, eman behar dituzten zerbitzuen alde egiteko.

3.- Madrilen onartutako neurri hauen larritasunaren eta ondorioen aurrean, Udal honek, euskal gizarteari dei egiten dio, mobilizatu eta kalitatezko eta

empleo público también está congelada, las consecuencias pueden ser desastrosas.

Lo que dicho así puede sonar a medida de ahorro, tiene unas implicaciones mucho más importantes que las que a primera vista se pueden deducir. De un lado, a medio plazo, y en la medida en que los trabajadores municipales se vayan jubilando, supone que los ayuntamientos no van a disponer de personal propio en número suficiente como para desarrollar las tareas encomendadas, lo que, invariablemente va a derivar en un empeoramiento y una merma en la calidad de los servicios que vienen prestando todos los ayuntamientos, también este. A su vez, las medidas irán en perjuicio de las condiciones laborales de l@s trabajador@s públicos.

Y la segunda consecuencia clara de medidas como la arriba descrita es que, con ello, se abren nuevos horizontes para quienes defienden que los servicios públicos han de ser privatizados; es decir, quienes defienden la liberalización total de los servicios públicos. La consecuencia directa para los ciudadanos es que solo quienes tienen dinero van a poder pagar y acceder a servicios que hasta ahora, y fruto del trabajo y del esfuerzo de muchos años de lucha, eran de acceso universal para todos.

En consecuencia, y por todo lo expuesto, el grupo municipal de Bildu en el ayuntamiento de Aramaio presenta la siguiente moción para su debate y aprobación

1.- Este ayuntamiento muestra su rechazo a las medidas anunciadas por el Presidente del Gobierno español, Mariano Rajoy, de supresión de la oferta pública de empleo y de prohibición de reposición en la función pública, que pueden suponer, caso de adoptarse, una merma en la calidad de



herritarrengandik gertueneko sistema publikoaren aldeko konpromisoa adierazi dezan.

los servicios públicos que presta este ayuntamiento.

2.- Este ayuntamiento solicita que se mantenga el consenso en torno a una defensa cada vez más urgente del Estado del Bienestar, entendido como defensa de los servicios públicos y cuya prestación en primera instancia corresponde a los ayuntamientos, como institución más cercana a los ciudadanos.

3.- Ante la gravedad de las medidas adoptadas en Madrid y las consecuencias que de ellas se derivan, este Ayuntamiento quiere hacer un llamamiento a la sociedad de Euskal Herria a que se movilice y muestre su compromiso a favor de un sistema público de calidad y cercanía a l@s ciudadan@s.”

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, Aramaioko Udaltzako bozketari ekin dio eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin mozioa onartu du.

## **7. BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ARABAKO TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA FINANTZEN LURRALDE KONTSEILUAN ZUIAKO KOADRILAREN ORDEZKARIAREN IZENDAPENEAN EUDELEN JARRERI BURUZKOA.**

Bildu udal-taldeko ordezkariak ondorengo mozioa aurkeztu du:

“Arabako Toki Administrazioaren eta Finantzen Lurralde Kontseilua urtarrilaren 17an osatu eta bildu zen lehenengo aldiz. EUDELeko Arabako Lurralde Batzordeak Zuiako Koadrilaren Ordezkari gisa Arrazua-Ubarrundiako alkatea izendatu zuen, PNVEk gure eskualdean duen alkate bakarra, hain zuzen ere. EUDELek ez zion Koadrilako beste alkate zein Koadrilako lehendakariari honen berririk eman, eta ostean ez du inolako azalpenik eskaini ere. EUDELi gutun bidez azalpenak eskatu bazaizkio ere ez du orain arte modu ezegokian egindako izendapenak berraztertze inolako asmorik agertu.

Ulegaitza eta onartezina iruditu zaigu EUDELek Arabako udalerrien errealitatea albo batera utzi eta zenbait alderdien interesen arabera jokatu izana. EUDELek Araban udal ordezkarien kopuruan bigarren indarra den Bildu aipatu Kontseilutik baztertu izana larria bada are larriago suertatzen da Zuiako Koadrilan. Gure eskualdeko herritarren gehiengo zabal batek eman zion Bilduri Bozka eta horregatik dauka Bilduk bost alkatetzatza kudeatzeko ardura, baita Koadrilako lehendakari ere. Aipatu errealitateari eta herritarren borondate argiari muzin egin dio EUDELek udal kudeaketarekin zerikusia ez duten arrazoiengatik.

Are gehiago, gogora ekarri nahi dugu aipatu Kontseiluaren ordezkariak ez direla EUDELeko ordezkari baizik eta Koadrila bakoitzarena. 4/2008 Foru Araua, otsailaren 18koa, Arabako Toki Administrazioen eta Finantzen Lurralde Kontseilua Eratu eta Arautzen duen azaroaren 20ko 29/96 Foru Araua aldatzekoari buruzkoa, horrela arautzen du Kontseiluaren udal ordezkariak izendatzeko prozedura:



### 3.artikulua.- Kontseilukideak.

3.- Arabako Toki Administrazioako entitateen bederlatzi ordezkariak eta horien ordezkoak honela izendatuko dira:

*-Lurralde Historikoko udalen elkarte nagusiak zazpi ordezkari titular eta horien ordezkoak izendatuko ditu, kudarilla bakoitzeko bat, kuadrilletako udalerrietako alkateen artean, Gasteizko Kuadrillan izan ezik; Vitoria-Gasteizen Alkateari baitagokio ordezkari edo bere ordezaritzeko berak izendatutako kideari.*

2011ko maiatzaren 22ko udal hauteskundeak utzitako emaitzei erreparatuta agerikoa da koadrila bakoitzean zein den herritarren borondatea, eta horren arabera indar korrelazioa. Hori beharke luke aipatu Kontseiluan ordezkariak izendatzeko orduan EUDELe kontuan hartu beharreko irizpide bakarra. Ez du horrela egin, eta horregatik aurkitzen gara EUDELi eskaera hau helarazteko beharrean. Udalen errealitatea eta herritarren nahia errespetatua izatea da helburua, Zuiako Koadrilak aipatu Kontseiluan izan beharreko ordezkaria gehiengo zabal bat ordezkatu dezan.

Aipatu guztia kontuan hartuta honako mozioa aurkezten dugu, udal osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan:

1.- Udal honek Arabako Toki Administrazioaren eta Finantzen Lurralde Kontseilurako Zuiako Koadrilan ordezkaria izendatzerakoan eskualdeko herritarren borondatea errespetatu eta gure udalen ordezkari kontuan hartzea exijitzen dio EUDELI.

2.- EUDELe aipatu Kontseiluan Zuiako ordezkari gisa Arrazua-Ubarrundiako alkatea, EAJ-PNVK koadrilan duen bakarra, izendatu duenez izendapena bertan behera utzi eta Zuiako Koadrilako udal ordezkarien gehiengo zabal baten ordezkari izan daitekeena izendatzeko beharrezkoak diren tramite guztiak egin ditzala eskatzen dio Udal honek.

3.- EUDELe eskatu zaion aldaketa gauzaten ez duen bitartean Arrazua-Ubarrundiako alkateak Arabako Toki Administrazioaren eta Finantzen Lurralde Kontseiluan udal hau ordezkatzeko ez duela argi agertu nahi du.

4.- Mozio hau EUDELe Batzorde Eragileari zein Arabako Lurralde Batzordeko kide guztiei helaraziko zaie, baita Arabako Toki Administrazioaren eta Finantzen Lurralde Kontseiluko kideei zein Zuiako Koadrilari."

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin mozioa onartu du.

## 8. BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA:

Udalbatzaren bilkura hasiera eman aurretik, Bildu udal taldeko ordezkari hurrengo mozio aurkeztu du, 7/1985 Legeko 46.2 atalaren babespean, Agurne Juldainek (bertaratutako Saharatar kolektiboaren ordezkari/bozeralamalea) irakurri duena:

"OTSAILAK 27a DELA ETA

Duela bi urte erdi, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Christopher Ross Estatubatuarra Mendebaldeko Sahararako gatazkarako ordezkari berezi izendatu zuenean, eta bereziki 2010ko urte hasieran magreben zehar honek egin zuen errondaren ondoren Marokoko gobernuaren eta Fronte Polisarioaren artean hainbat hilabetetan etenda zeuden negoziazioak desblokeatuko zirenen itxaropena piztu zen gatazkaren ondorioz latzenak pairatzen dituzten Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetako eta Tindoufeko (Aljeria) errefuxiatu kanpamenduetako Sahararren artean. Zoritxarrez, azkeneko urtean, itxaropen izpi horiek





Marokoko gobernuaren jarrera oldarkor eta bortxazkoaren eraginez, bertan behera gelditu dira Nazioarteko herrialde boteretsuenen isiltasun eta konplizitatearen babespean.

Marokoko indar okupatzaileak Mendebaldeko Saharako jatorrizko biztanleen giza eskubideen aurkako erasoen larriagotzeen testigantzak etengabeak dira. Babesgabeko biztanleak pairatzen dituzten erasoak, atxiloketak, torturak, bortxaketak, desagertzeak edo deportazioak helburu bakarra dute, Mendebaldeko Saharako biztanleen borondatearen aurka, Marokoko gobernuaren aldebakarreko autonomia plana inposatu eta Saharar herriaren aurkako genozidioa bururaino eramatea, NBEak hainbat eta hainbat erresoluziotan onartutako Mendebaldeko Sahararen Autodeterminaziorako eta Independentziarako eskubidea behin betiko lurperatuaz.

Guzti honen adierazgarri dugu Gdeim Izikeko kanpamenduaren aurka erabilitako neurri gabeko indarkeria. Marokoar poliziek marokoko okupaziopean sekula ikusi gabeko protesta kanpamendua 2010eko azaroaren 8an bortizki suntsitu zuten hainbat hildako, zauritu eta atxilotu eraginez. Uneotan, atxilotuetako 23ren egoera lazgarria eta onartezina da giza eskubideetan zein norbanakoen duintasunean sinesten duen edonorrentzat. Laidoak, tratu txarrak eta tortura fisikoak nahiz psikikoak etengabe jasan dituzte azken urte honetan Sale 2ko espetxean. Gaixotasun kronikoak eta atzeraezinezko kalteak dituzte. Marokoko erresumak Gdeim Izikeko kanpamenduan 20.000 saharar bahitu izanaren eta marokoar aberriari traizio egitearen akusaziopean oraingoz datarik ez duen epaiketa militarra inposatu die.

Gogoan dugu baita ere oraindik orain iazko urriaren 23aren egunsentian hainbat ezezagunek Tindoufeko errefuxiatu kanpamenduetan buruturiko bahiketa. Harez gero, ez da Rosella Urru, Enric Gonyalons eta Ainhoa Fernandez de Rincón nazioarteko kooperatzaileen berririk izan. Fronte Polisarioa argi mintzatu da. Mohamed Lamine Buhali, defentsa ministroaren arabera, 'marokoar intelijentzia' bahiketaren atzean dago. Espainiar estatuko agintariak, arestian aipaturiko gertakariak, beste behin Mendebaldeko Saharako gatazkan marokoko erresumaren tesiekin bat egiteko baliatu izana salatzen dut. Espainiako gobernuak, erbesteko saharar errefuxiatu kanpamenduen existentziaren erantzukizun saihestezina du eta saharar errefuxiatuen bizi baldintza eskasak duintzeko nazioarteko kooperatzaile hauek buruturiko lan eskerga ezinbestekoa dela aski ongi daki. Hala ere, espainiar gobernuak nazioarteko kooperatzaileak saharar errefuxiatu kanpamenduak utz ditzaten iradokiz, gutxieneko giza eskubideekiko begirune eza erakutsi du beste behin ere.

Egungo egoera ikusirik 36 urte ondoren Nazioarteko legediaren arabera Mendebaldeko Saharako lurraldearen administratzaile izaten jarraitzen duen Espainiar estatuaren erantzukizuna azpimarratu nahi dut beste behin. Gogoratu besterik ez dugu portugalko gobernuak bere garaian Ekialdeko Timorreko deskolonizazio prozesuan izandako jokabide eredugarria, Mendebaldeko Saharako kasuan, Espainiar Estatuak Marokoko gobernuak buruturiko giza eskubideen eta Nazioarteko oinarritzko zuzenbidearen urraketekiko erakutsitako jarrera ulerkor eta koldarraren aldean.

Aramaioko udalbatzari ondoko mozioa aurkezten diot hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu bozkatu eta onartu dezan.

1.- Aramaioko udalbatza giza eskubideen arloko hainbat gobernu kanpoko erakundeen, Amnesty International (AI) edo Human Right Watch (HRW) kasu, txostenak haintzat hartu eta Europako parlamentuak 2010eko abenduan onarturiko mozioarekin bat etorritik Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zampaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagertzeak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako erasoak ez bairik gabeko salaketa eta gaitzespen bortitza adierazten du.

2.- Aramaioko udalbatzak Rosella Urru, Enric Gonyalons eta Ainhoa Fernandez de Rincón bahiturik darraiten nazioarteko kooperatzaileen senitarteko eta lagunei, momentu gogor hauetan erabateko elkartasuna adierazten die eta berehala aske utz ditzaten eskatzen du.



3.- Aramaioko udalbatza Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 36. urteurrenarekin bat etorritik, 2012ko Otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera herriko udaletxean zintzilikatzea adosten du.

Era berean, Aramaioko udalbatzak, Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide justu eta demokratikoa lortzeko giltzarriak diren ondoko konpromisoak hartzea eskatzen dio espainiar estatuko gobernari:

1.- Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan Marokoko agintariek buruturiko gerra krimenak, dagokien instantzietara, Hagako giza eskubideen auzitegia kasu, bideratzea eta Madrilera (Espainia) audientzia nazionalen abiatutako ikerketei bide ematea, berauek isildu eta estali beharrean.

2.- Mendebaldeko Sahararako Erreferendumaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza nahiz material baliabidez laguntzea, eta batez ere, giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan Nazio Batuen Erakundearen (NBE) aurrean erresoluzio bat aurkeztea, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzen duen misio bakarria izateari utzi diezaion.

3.- Mendebaldeko Saharako biztanleak, eurek askatasunez egokien deritzoten naziotasunari eta biztanle orori, Mendebaldeko Saharakoak barne, dagokigun mugimendu askatasuna errespetatzea eta bermatzea. Horretarako, Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2740 km luze den lertsaren harresiaren eraispena burutzeko giza eta material baliabideak eskaintzea.

4.- Espainiar estatuko diputatuen kongresuak ebatzitaikoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuei, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea. Hau da, bere legedia betetzea.

5.- Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legez kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki, zentzu honetan azken asteetan eginiko deklarazioak zuzentzea Saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna berritzeari uko eginaz, akordio honek Mendebaldeko Saharako urak bere baitan jartzen dituen artean.

6.- Mendebaldeko Saharako biztanleen interesen aurka, bertako baliabide naturalak espoliatzen duten Espainiar Estatuko enpresak zigortzea, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) ebatzitaikoa erresoluzioak saihestu eta urratzeagatik.

7.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta sustatzea.

8.- Azkenik, autodeterminazio erreferenduma sustatuz eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudenzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako deskolonizazio prozesua amaitzea.

Mozio honen edukia onartuz gero, Aramaioko udalari bere edukia espainiar estatuko erkidegoko ordezkartzara bidaltzea eskatzen diot azken honek espainiar estatuko gobernari helarazi diezaion.”

Jarraian, Alkateak bertaratutako Saharatarrei eskerrak eman die etortzeagatik eta Aramaioko Udalaren babesa dutela (instituzionalki), esan die.

Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin mozia onartu du.



## **9. 11/12 – 23/11 ARTEKO ALKATEAK EGINDAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Gainontzeko korporazio-kideen jakinerako, Alkateak 11/12tik 23/12 zenbakira eman dituen Dekretuak banatu ziren bilkura-deialdiarekin. Oraingoan, horien berri eta azalpenak eman ditu era laburrean. Jarraian, korporazio kideren batek galdetzekorik duen galdetu du. Inork ez duenez galderarik egin, hurrengo puntura igaro da.

## **10. ESKARIAK ETA GALDERAK**

Eskariak edota galderarik duten galdetu die Alkateak gainontzeko korporazio kideei. Inork ez duenez hitza eskatu, Alkateak amaiera eman dio bilkurari aurretik zinegotziei ohartaraziz zenbait lapurreta egon direla herrian, eta horren inguruan bando bat egingo duela.

*Honekin eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, iluntzeko 19:25ak direnean, alkate jaunaren sinadurarekin hemen jasotzen den bilkurari amaiera eman diogu.*